

Gaia: SOBERAKINEN BANAKETA

NAHITAEZKO ERRESERBA-FONDORAKO ETA HEZKUNTZARAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO EKARPENERAKO (COFIP) ZUZKIDURAK

Kooperatibista agurgarria:

2021eko ekitaldia itxi ondoren, kooperatibak emaitza positiboa izanez gero, behartuta dago nahitaezko erreserba-funtsari (FRO) eta hezkuntzarako eta kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari (COFIP) gutxienezko kopuru batzuk ematera, Euskadiko Kooperatiben Legeak ezarritakoari jarraikiz.

Aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzera eta zerga galdagarriak ordaintzera bideratzen diren kopuruak kendu ondoren geratzen diren soberakin garbiek osatuko dituzte soberakin erabilgarriak, eta honakoetara bideraturiko dira:

FROra eta COFIPera gutxienez % 30eko zenbatekoa; % 10 COFIPera eta % 20 FROra. FRO kapitalaren % 50era iristen ez den bitartean, COFIPerako zuzkidura % 5era murriztu ahal izango da.

Nahitaezko Erreserba Fondora honako hauek bideratuko dira nahitaez:

- a) Batzar orokorrak ezartzen duen soberakin erabilgarrien ehunekoak, kooperatibaren EstatutuSozialetan ezarritakoaren arabera.
- b) Kapital sozialerako nahitaezko ekarpenen gaineko kenkariak, bazkideen bajaren kasuan.
- c) Sarrera-kuotak.

Hezkuntzarako eta kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena (COFIP), estatutuetan edo batzar orokorrean ezarritako oinarritzko ildoak aplikatuz, interes publikoko helburu hauetakoren batera bideratuko da:

- a) Bazkideei eta langileei kooperatibismoari, kooperatiba-jarduerei eta lanpostuarekin zerikusirik ez duten beste gai batzuei buruzko prestakuntza eta heziketa eskaintzea.
- b) Kooperatiben arteko harremanak sustatzea, kooperatiben arteko sustapenerako, laguntzarako, zuzendaritza komunerako edo laguntza-jardueretarako sortutako erakundeetan parte hartzeagatiko gastuak estaltzea barne.
- c) Hezkuntza, kultura, lanbidea eta laguntza sustatzea, eta kooperatibismoaren ezaugarriak zabaltzea kooperatibak jarduten duen gizarte-ingurunean eta, oro har, gizartean.
- d) Euskararen erabilera sustatzea.
- e) Enpresa kooperatibo berriak sustatzea, euskal kooperatiba-mugimenduak sustatutako irabazi-asmorik gabeko erakunde bati diru-ekarpenak eginez.

f) Bazkideak eta langileak prestatzea eta hezteak, kooperatiba-sozietateetan emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiteko politika eraginkorra susta dezaten.

Aipatutako ekarpenaren zenbatekoa, kooperatibak berak adierazitako interes publikoko helburuetara bideratu ez bada, soberakina banatzea onartu zen ekitaldiaren hurrengo ekitaldian eman beharko zaie irabazi-asmorik gabeko erakundeei, ekarpen horretarako ezarritako interes publikoko helburuetara bideratzeko.

Ezohiko moduan eta COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz, maiatzaren 24ko 8/2021 Errege Lege Dekretuak, 12. artikuluan, 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzen du kooperatiben Heziketako eta Sustapenerako Fondoaren erabilera aldi baterako malgutzeko ezohiko neurria, COVID-19aren ondorioak arintzeko helburuarekin.

- Kooperatibari likidezia emateko finantza-baliabide gisa, bere funtzionamendurako behar badu; kasu horretan, horrela aplikatutako zenbatekoa urtero sortzen diren erabilera askeko emaitzen gutxienez ehuneko 30ekin itzuli beharko da, hezkuntzarako eta kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena salbuespenezko aplikazioaren erabakia hartzeko unean zuen zenbatekora iritsi arte, gehienez ere hamar urteko epean.
- COVID-19aren **osasun-krisia geldiarazten** edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen **edozein jardura**, ekintza propioen bidez edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuei dohaintzak eginez.

Fco. Javier Sanz Santaolalla
Zuzendaria